

## SAN PAULO EGUNEZ ORUEN

1

Agur anai-arrebok  
ta danoi on egin!  
Ondo jan-edan dogu  
ta isildu ezin.  
Ondo bete ezkerro  
barruak irakin,  
Ez gara keja gaurko  
bazkariarekin.

2

Nahibeste jan ta edan  
gainera gozue,  
orain dator ordua:  
ordaindu dozue?  
Dana eginda dago,  
igurtzi mosue;  
Edozeinek ez dauko  
Holako auzue.

3

Komentu haundia ta  
ez bokazinorik,  
guri ez jaku falta  
gaur debozinorik.  
San Paulori ein deutsogu  
gaur orazinorik:  
ez deiskula ukatu  
bedeinkazinorik.

4

Orueko praileak  
ei dabe pentsatu:  
hemen Pasiotarren  
familia batu.  
Eta bizi barria  
arrera bultzatu;  
gustatzen bajatzue  
gurekin kontatu.

5

Ondo jan eta gero  
nor ez da kantari?  
Eskerrik beroenak  
deitu deuskunari.  
aupá Aita San Paulo  
Kurutzekoari!  
Bera da Pasiotar  
guztion Zaindari.

A. Martzel